



LORD FERGUSON-CC BY SA

◦ Zientziaz dugun pertzepzioa ◦

Garapenak bere menpeko bihurtuko gaituen beldurrez

Zientzia gauza ona da, baina alde txarrak ere baditu. Horren esaldi sinpleak balio diezaguke Eusko Jaurlaritzak iaz kaleratutako ikerlanaren emaitza laburbiltzeko. Euskal Herrian egindako azterketaren arabera, herritarrok uste dugu erakunde publikoek lidergo handiagoa behar luketela zientzia gaitan, eremu pribatuari gaur duen pisuaren zati handi bat kenduta.

UNAI BREA

EUSKAL HERRITARROK jarrera anbiguala daukagu zientziarekiko: haren balorazio ona egiten dugu oro har, baina kezka dugu sor ditzakeen arriskuez, eta ez gara lar fidatzen ikerketa gidatzen dutenekin. Hori da iazko irailean Eusko Jaurlaritzak publikatutako ikerlan baten ondorio nagusietakoa. *Zientzia eta teknologiaren giza iritziak eta irudikapenak Euskal Herrian. Bere tratamendua eguneroko prentsan* dauka izenburu mardula, eta Lehendakari

ritzaren sailaren menpe dagoen Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen ekimenez 2008an egindako ikerketaren emaitzak jasotzen ditu. Artean, Juan Jose Ibarretxe zen Lakuako maizterra.

“Jaurlaritzak Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Plana aurkeztua zuen, eta beharra sentitzen zuen euskal herritarren pertzepzioa jasotzeko zientziari buruz”, azaldu digu Eguzki Urteagak, ikerlanean parte

● Zientziaz dugun pertzepzioa

hartu duen soziologoetako batek. Hain zuzen, Iparraldeko landa-lanaz arduratu da Urteaga, ikerketa eremua ez baitzen EAE bakarrik izan, Euskal Herri osoa baizik.

Ikerketa hiru eremutan egin zen: EAE, Nafarroa eta Iparraldea. Bakoitzean eztabaida talde nagusi bi eratu ziren; bata, zientzia eta teknologiako eta gizarte-zientzietako ikasketak zituztenek osatua; bigarrena, bestelako lizentziaturaren bat zeukatenek. Horrez gain, banakako elkarrizketak egin zituzten zientzian eta berrikuntzan adituekin.

Zientzia ondo baloratua da, baina...

Batez ere eztabaida taldeetan azaldu ziren iritziez mintzatu zaigu Urteaga. “Zientziari eta zientzialariei buruz zer ikuspegi zuten galde-tuta, balorazioa nahiko ona zen. Baina xehetasunetan sartuz gero, kezka eta kritikak agertzen ziren”.

Zientziaren garapenak aukera ematen du teknika berriak sortzeko, zerbitzu berriak eskaintzeko, bizi kalitatea hobetzeko... baina aldi berean arazoak dakartza. Horra uste zabalduena. “Iparraldean, adibidez, transgenikoen gaia aipatzen zuten”, dio Eguzki Urteagak, “benetako eztabaida publikoa dago gai horretaz; Hegoaldean ere bai, baina beharbada gutxiago”.

Horrekin lotuta, eztabaida taldeetan mesfidantza aipatu zuten, ikerketa egiten duteneko mesfidantza, izan erakunde publiko edo pribatuak, baina pribatuekikoak batez ere. Finantziario pribatua areagotu ahala, arazoak sortzen dira, helburuek ez dutelako nahi eta nahi ez jendarte osoaren onerako izan behar. “Farmazia-industriaren adibidea maiz atera zen mahai gainera. Gaixotasun batzuk oso hedatuta daude munduan, baina ez dago benetako interes ekonomikorik horientzat sendagaia aurkitzeko. Aldiz, erosotasunari

Eskuko telefonoen belaunaldi berri bakoitzak aldaketa gutxi izaten du aurrekoarekiko; herritarren ustez, benetako berrikuntza ez da hainbestekoa, eta berritatz saltzen dizkiguten produktu asko marketin hutsa dira. Izan ere, ikerketa merkatuaren esku uztea arriskutsua dela uste dugu, haren interesa eta herritarrena ez baitatortzen; farmazia-industriaren jarduna horren adibide argia da.

lotutako beste medikamentu batzuk garatzen sekulako dirutza inbertitzen da. Ikusten da herritarrak geroz eta informatuagoak daudela, eta geroz eta kritikoagoak direla laborategi batzuen logikarekin”.

Bide batez esateko, ikerketa egiterakoan ohartu ziren luzaroan iraun duen uste batek ez duela errealitatearekin bat egiten: zenbat eta zientzia arloko ezaupide handiagoak, orduan eta zientziarekiko jarrera baikorragoa. “Gure ikerketak –eta beste zenbaitek ere bai– hori hala ez dela frogatu du”, dio Urteagak, “jarrera definitzen duen elementua ez baita ezagutza, konfiantza baizik. Ezagutza handiago izateak eragiten duena ez da jarrera baikorragoa, iritzi sendoagoak eta egonkorragoak baizik. Ezagutza maila baxuagoa delarik, handiagoa da norberaren ustea aldatzeko joera, egunerokotasunaren eta testuinguruen arabera. Txernobileko istripuak edo behi eroen gaitzak, kasu baterako, jende askoren iritzia aldarazi zituzten”.

Erakunde publikoei gehiago eskatzen zaie

Herritarrek uste dute gailentzen diren ikerketa lerroak ez datozela bat beren nahiarekin. Ikerkuntzan gero eta pisu handiagoa duelako finantziario pribatuak, hain justu. Eta erakunde publikoei eskatzen diete lidergoa eskuratzeko, “beharrezkotzat dutelako zientziaren eta teknologiaren garapena merkatuaren eskuetan ez uztea”. Instituzioek ildo horretan egiten duten gidaritzaz lanaz iritzi desberdinak azaldu ziren eztabaida taldeak egitean: EAEn pertzepzioa nahiko baikorra zen, “kontuan hartu behar baita inkesta hau 2008an egin zela, preseski Eusko Jaurlaritzak Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren plan berria aurkeztu zuenean”, argitu digu Eguzki Urteagak. Iparraldean, ez zientzian ez beste inolako arlotan politika zehatzak garatzeko era-

WWW.LGBLOG.ES



kunderik eta aurrekonturik ezean, oso bestelako ustea zuten. Eta Nafarroan ere, etsipena zen nagusi.

Garapenaren menpeko?

Zientziak, bere onura guztiekin, hainbat arrisku ere badituela esan dugu lehenago. Horietako bat da ea garapenak ez ote gaituen bere menpeko bihurtzen. “Talde guztietan agertu zen ideia hori. Eguneroko bizimodua errazten diguten hamaika tresna –Internet, eskuko telefonoa...– sortu dira garapenari esker, baina kezka zegoen ea ez ote dugun horren kontrola galdu”. Denboraren kudeaketarekin lotutako kezka da, hein handi batean. Teknologia aukera ematen digu gauza gehiago egiteko denbora berean, baina denbora faltak itota gaude, inoiz ez bezala. Teknologia “gero eta gehiago”-ko logika batera bultzatzen gaitu.

Horrez gain, makinismoaren berezko kontraesana hartu behar da kontuan: bizimodua errazten digu, baina zaildu ere bai. Lana gure ordeztu egiten duten tresnek erosotasuna dakarkigute, baina aldi berean kalte egiten digute, lanpostuak galaraziz esaterako. “Eztabaida taldeetan, horrekiko jarrera nagusia ambigua zen, ez zen jotzen ez ontzat ez txartzat, ‘horrela da’ esaten zuten, onartuta dago gainditu ezin daitekeen kontraesana dela. Besterik gabe, esaten zuten saiatu behar garela ondorio negatiboak ez daitezen gehiegizkoak izan”.

Eta bestalde, teknologiaren aurrerapausoak, benetako aurrerapausoak dira edo marketin hutsa? Herritarrek kontsumitzea oinarri duen sistema ekonomikoan beharrezkoa da produktu berriak sortzea; eta berrikuntza ezinbestekotzat jo zuten eztabaida taldeetan, baina bereizi egiten zituzten benetako berrikuntza eta merkatuak sortutako produktueta-

ko asko, aurreko belaunaldikoekin konparatuta oso aldaketa gutxi dituztenak.

Zenbat dakigu zientziaz?

“Herritarrek uste dutena baino ezaupide gehiago daukate zientzia eta teknologiari buruz”, diosku Urteagak. Arazoa da maiz, eguneroko bizitzan, ez dela izaten modurik ezaupide horiek erabiltzeko.

Beste arazo bat, sarritan aipatua, gaur egun zientzian dagoen espezializazio handiak sortutako zailtasunak dira. Alegia, iristen zaigun informazioa puntapuntakoa da, baina oso espezifikoa, gutxi uler dezaketen terminologiarekin emana.

Horren aurrean, herritarrak pixka bat galduta sentitzen dira. “Baina ez herritarrak bakarrik. Ez dago hainbesteko aldea zientzialarien eta gainerako herritarren pertzepzioen artean. Espezializazioaren zurrunbiloan sartuta gaudelarik, beharrezkoa da ikuspegi orokorragoa emango diguten tresnak sortzea”.

Iparraldean jendea informatuago sentitzen da. Frantziako Estatuan zientzia askoz hobeto baloratuagoa dago Espainiakoan baino, zientzia-ikasketek ospe handiagoa daukate eta askoz dibulgazio gehiago egiten da. Baina Iparraldeko eztabaida taldeetan argiago ikusten zuten zientzialarien eta hedabideen arteko etena. Zientzialariek ez dute benetako indarririk egiten komunikabideengana jo eta informazioa gizarteratzeko, zioten. Orobat, Iparraldean bezala Hegoaldean, hedabideetan zientzia gaiak sarriago aipatzeko beharra azpimarratu zen, eta ez gaur egungoa bezain ikuspuntu anekdotikotik. Zientzialarien borondatea, esan dugunez, funtsezkoa da horretarako, baina baita kazetariena ere. “Gaur egun kazetariei lehen baino gehiago eskatzen zaie. Azken batean gai horiek menperatu behar dituztelako. Eta hori zaila da”. ■

Zientzia, oro har, ondo baloratuta egonagatik, ikerketa egiten dutenenganako mesfidantza dago, batez ere eremu pribatuarekiko



www.eguzkilorejoya.com

EGUZKILORE®
Zuluaga

DONOSTIA: Hernani, 13 - **BILBO - GASTEIZ**
Zuluaga Bitxitegiak: Galdakao eta Zornotza